

ALKATEAREN ERABAKIA

ZENBAKIA: 0439

GAIA: JOSE ARANA HITZARMENA 2025

ESPEDIENTEA: 2025GDIR0002

INTERESDUNA: JOSE ARANA PATRONATUAREN FUNDAZIOA- FUNDACIÓN PATRONATO JOSE ARANA (IFK: G20177614)

Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, 25. artikuluan, esaten du udalerriek, beraien interesak kudeatzeko eta beraien eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduera mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzaketela. Lege agindu hori burutzeko moduetako bat erakunde eta elkarteei herri onurako jarduerak egiten laguntzea da.

Zentzu horretan, Eskoriatzako Udalak ekitaldi honetarako udal aurrekontuan 8.000,00 € euroko dirulaguntza bereizia aurreikusten du JOSE ARANA PATRONATUAREN FUNDAZIOA- FUNDACIÓN PATRONATO JOSE ARANA-ren alde, 2025. urtean antolatuko dituen jarduerak sortutako gastuak finantzatzen laguntzeko.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22.2a) artikulua esaten du toki entitateetako aurrekontuetan aurreikusitako dirulaguntza izendunak zuzenean eman ahal izango direla, hitzarmeneta eta dirulaguntza horiek arautzen dituzten arauetan jaso bezala.

Gizarte teknikariak egindako proposamenaren arabera, dirulaguntza arautzeko hitzarmenaren baldintzak ikusita, eta "Eskoriatzako Udalak dirulaguntzak emateko erregimena arautzeko ordenantza orokorra"-ren 6.artikuluak emandako eskumenak erabiliz, alkate naizen honek honako hau

ERABAKI DUT

LEHENENEGOA.- Udalaren eta JOSE ARANA PATRONATUAREN FUNDAZIOA- FUNDACIÓN PATRONATO JOSE ARANA-ren (IFK: G20177614) artean egin beharreko hitzarmena ONARTZEA.

BIGARRENA.- JOSE ARANA PATRONATUAREN FUNDAZIOA- FUNDACIÓN PATRONATO JOSE ARANA-ri 8.000,00 €-ko dirulaguntza ematea SABADELL entitatearekin kontratatutako ondorengo maileguaren amortizazioaren eta interesen kostua finantzatzeko erabiliko da:

- Maileguaren data: 2024-06-11
- ZENBAKIA: 807825795214

HIRUGARRENA.- Hitzarmenaren seigarren klausulan jasotakoaren arabera, dirulaguntzaren %60 ordaintzea hitzarmena sinatu eta arloko teknikariak ordainketa proposamena egin ondoren.

LAUGARRENA.- 8.000,00 €-ko gastua konprometitzea, aipatutako dirulaguntzari dagokiona, eta indarrean dagoen udal aurrekontuko 1 0300.471.231.91.01 2025 partidari egozte.

Alkatea,